

Komunikazioa erakundeetan aditu tituluaren bigarren aldia

2013/05/17

Aditu tituluaren **helburua** da ulertzea komunikazio paradigma berriak eta horiek erakundeetan duten eragina eta prestatzea profesionalak erakundeetako komunikazio jariora bideratzeko. Zuzenduta dago, bestalde, lanean dabiltzanei enpresa, elkarte eta erakundeetan, batez ere komunikazioan; bestetik, aditu titulu hau oso egokia da enpresa-komunikazioaren nondik norakoa ezagutu eta menderatu nahi duten lizentziadun berrientzat, bereziki ikasketa hauek dituztenentzat: Ikus-entzunezko Komunikazioa, Humanitateak eta Enpresa, Kazetaritza, Lan Harremanak eta Industria Antolakuntza Ingeniaritza.

Aditu tituluak **30 ECTS** kreditutan banatuta dago, 15 edukietarako eta beste 15 proiekturako. Edukietan %15 presentziala izango da; gainerakoa, ikasleak bere kasa egin beharrekoa. Edukiak, bestalde, **8 materiatan** banatuko dira:

1. *Marketin eta komunikazio oinarriak.*
2. *Komunikazioa erakundeetan.*
3. *Baliabide teknologikoak.*
4. *Jarrerak komunikaziorako.*
5. *Enpresa eta erakundearen kultura berriak.*
6. *Jende eta kamera aurreko komunikazioa.*
7. *Mintegiak adituekin.*
8. *Proiektua: definizioa, tutoretzak, garapena eta aurkezpena.*

Ikasturte amaieran, ikasleak titulu bat jasoko du, hartutako kreditu kopuruaren arabera.

Aditu titulu hau **proiektuen metodologian oinarrituta** dago. Horretarako, proiektu errealek oinarri hartuta (15 ECTS), ikaslea izango da ikaskuntzaren ardatz. Praktikotasun horretan sakontzeko asmoz, ikasle bakoitzak kurtso amaierako proiektu bat osatu eta aurkeztu beharko du. Lan hori bideratzeko, ikasle bakoitzak tutore bat izango du. Halaber, **tutoretza saioak** antolatuko dira, taldeka zein bakarka. Kurtsoaren hasieratik komunikazio arazo erreal bat identifikatuko da eta proiektuaren ardatza arazo horri konponbidea ematea izango da.

Aditu tituluak **2013ko urriaren 3an hasiko da**, eta 9 hilabete iraungo du. **2014ko uztailaren 5ean amaituko da**, ikasleek egindako **proiektuak aurkeztu eta gero. Prezioa: 3.900 euro.**

